

Dosier berezia: Artelekuk ateak zabalduko ditu berriro ekainaren 21ean

1. Aurkezpena
2. Abiapuntua
3. Lan molde berriak arte errealtate berri baterako
4. Irudi ezaugarri berria: Arteleku topagune gisa
5. Eraikina birdefinitua
6. Lorategi publikoa
7. Arteleku berriz irekitzea. Ekainak 21
 - 7.1. Egitaraua
 - 7.2. Oroiarena
8. Mugatxoan 2002
9. Arteleku eta 2004 Manifesta



ARTELEKUK ATEAK ZABALDUKO DITU BERRIRO EKAINAREN 21EAN

1. AURKEZPENA

Ekainaren 21ean, **Artelekuk**, Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko Donostiako Kultura eta Arte Garaikideko Zentroak, ateak zabalduko ditu berriro.

Kamaleoi bat balitz bezala, **Arteleku** beti saiatu da aldatzen eta eboluzionatzen, gaur egungo artearen eta kulturaren inguruko eztabaida gune berriak bilatu nahian. Orain ateak zabaltzen ditu berriro urtebetean barne eraldaketa garrantzitsua jasan ondoren, duela 15 urte zabaldu zenetik izan duen aldaketarik handiena edo nabarmenena behintzat.

Artelekuk instalazioak, ekipamenduak eta irudi berria estreinatuko ditu; horren bitartez produkzio modu berrien inguruko kezka berrituak adierazi nahi ditu, jarrera eta proiektu hibridoagoak edota web, liburutegi edo erakundeekiko harremanen garrantzi handiagoa, beti ere, orain arte egindako guztia ahaztu gabe.

Ekainaren 21eko ospakizunaren asmoa da puntu eta jarraia jartzea, horren ondotik beste jarduera, beste aurkezpen, beste proiektu eta abar batzuk etorriko direlarik. Horien bitartez aurten eraikin berria aurkeztu ahal izango diegu **Arteleku** osatu duten eta osatzen duten guztiei, baita ezagutu eta bertako dinamikan parte hartu nahi duten guztiei ere.

2. ABIAPUNTUA

“Arteleku leku periferiko bat da eta Artea harreman oso emankorren trukea bezala ulertzen du. Laboratorio gisa oso ondo funtzionatu du, guztiokartearekiko izan nahi dugun lekuaren hausnarketa egiteko aukera izan dugu.” (Sergio Prego)

Arteleku duela hamabost urte jarri zen abian. Hasiara batean Zentroa orduko arte ederretako fakultateen antzera eratu zen. Hala ere, sailkapen hori onartu eta artea irudikapen funtzio hutsa duten konpartimentu itxi bezala ulertu ordez, **Artelekuk** bilakaera azkar eta etengabeari hasiera eman zion, Zentrotik pasa diren eta aldaketa egoerak, diziplinarteko prozesuak, sormeneko jarrera berrietara zabalduetako galderak eta abar mahai gainean jarri dituzten pertsonen lana, jarrerak eta konpromisoa jasotzen dituen antolakuntza dinamika batek bultzatuta.

Artistak gizarte eragile aktibo bezala duten kalitateaz jabetu direla eta bere inguruan gertatzen diren aldaketetatik kanpo gelditu nahi ez dutela dirudien bezala, **Artelekuk** zalantzan jarri du artisten prestakuntza eta produkzioa bideratzeko sortutako zentro gisa bizi duen egoera, eztabaida eta komunikaziorako gunee eta bokazio publikoa duen erakunde bihurtzeko.

Etengabeko elkarrizketa eta trukeko urte hauetan artearen sailkapen zurrun eta akademikoak itxuragabetu egin dira, eta lan espazioaren, baliabideen edota programaren berregituraketa jarraiarri esker **Artelekuk** lortu du oso modu aktiboan haustura eta ertzetan mantentzea, oraindik nola izendatu ez dakigun gauzak gertatzen diren zalantzazko espazio horietan, bertan egotea ere komeni ote den ez dakigun leku horietan.

Artelekuk orain aurkezten duen egitura berriak erabiltzaileen behar berriei erantzuten die. Ohiko tailerrak kudeaketa gunee eta multimedia ekipamendu berriekin batera daude; liburutegia handitu egin da eta zentroaren gunee adierazgarri bihurtu da, web orriak gero eta informazio eta zerbitzu gehiago eskaintzen dizkie ugaritzen ari diren bisitariei eta internetarako gero eta formatu bereziagoa duten proiektuak aurkezteko aukera eskaintzen du; ZEHAR aldizkariak artearen eta pentsamenduaren inguruko aldizkariaren artean toki garrantzitsua betetzen jarraitzen du eta, inguruko guztia bezalaxe, etengabe ari da formatoa eta edukiak aldatzen; proiektu elkartuei esker **Artelekuk** bere jarduerak deszentralizatu ditzake eta profil anitzeko proposamenetan parte har dezake.

Aldaketa prozesu horiek erakusten dute artea ez dagoela errealitatetik at, ez eta **Arteleku** ere.

3. LANEKO PLANTEAMENDUAK

Informazioaren gizarteak, globalizazioak, produkzio era berriak edo, artea errealitate gisa, inmaterialaren kontzeptuak duten eraginak beharrezko egiten dute artea ekoizteko erei buruzko eztabaida piztea, eta **Artelekuk** eztabaida hori bere egin bakarrik ez, bultzatu ere egiten du.

Ildo horretan **Artelekuk** dituen apustuak batzuk dira: www.arteleku.net, proiektu elkartuak, Edizioa Pentsatu edo Superposizioak.

Edizioa pentsatu ZEHAR aldizkaritik sortutako proiektua da; aldizkaria denboran zehar **Artelekuko** komunikazio baliabide nagusienetakoa bihurtu da, azken urteotan une bakoitzean garrantzitsuak iruditu zaizkigun gaiak lantzeko eztabaida gunee hain zuzen ere.

Zehar aldizkaria, bere berezitasunari esker, artearen eta sorkuntza garaikidearen munduko profesional, zaletu eta ikasle askoren erreferente bihurtu da. Argitalpenak **artelekuren** etengabeko autokritika eta eztabaidako idealak jaso ditu eta jarrera irekia

erakusten du aldaketa, hausnarketa eta hobekuntzaren aurrean. Horrexegatik Zehar gaur egun komunikazio plataforma irekia eta dimentsio anitzekoa da, eta bere proiektuak Zehar web orrian argitaratzen orain duen formatua aldatzerainokoak dira.

www.arteleku.net orria, gainera, informazio tresna izateaz gain, lan gune bizi bat ere bada, zentroaren gune fisikoaren hedapena, medioko proposamenik zehatzenak garatu eta zabaltzeko euskarri gisa balio dezakeena. Gune irekia da, geroago eta oparagoa, hor aurkitu baitaitezke pdf formatuko Zehar aldizkaria, dida web proiektuak, zentroaren gaineko kronika El Album de Pernan albumean, artetile batzuen publikarpetak (atal horretarako lan ireki eta espezifikokoaren adibide on bat Iñaki Imazena da), gustuenekiko loturak edo **Artelekurekin** zerikusitako beste proiektu batzuk ere.

Proiektu elkartuak kultur ekimen autonomoak dira, **Artelekurekin** elkarlan estuan beren jarduerak aurrera eramaten dituzten eta programa aberasten duten artetileenak. Horietako bakoitzak errealitate, produkzio era, diziplina arteko erlazio ezberdinak eta abar planteatzen ditu. Hor aurki ditzakegu D.A.E., CONSONNI, AMASTÉ edo BITTART bezalako proiektuak, arte, kultura, gizarte, politika, ikuskizuna eta horrelakoen arteko zubiak planteatzen dituztenak ikuspegi ezberdinetatik; MUGATXOAN, OKUPGRAF EDO ELEKTRONIKALDIA proiektuak, dantza, grafikagintza edo musika elektronikoa bezalako diziplinen mugak aztertzen dituztenak; eta ARTE & ELEKTRIZITATEA bezalako proiektuak, sorkuntzaren teknologiekiko erresistentzia/mendekotasunaren gaineko proposamen oso ezberdinak planteatzen dituztenak.

D.A.E.

D.A.E. kultur elkarte bat da eta bere jarduerak zenbait gune paralelotan egituratzen ditu; elkartearen esku hartze eremuak Donostia hiri osoa hartzen du honako proiektuekin: Front Line Compilation, Tilo Schulzen El Retorno del Display, KLATen Calcinatio.

CONSONNI

CONSONNI proiektu artistiko bat da eta diziplina anitzeko esperimentazio artistikora eta era askotako ekitaldiak egitera bideratuta dago bi helburu nagusirekin, bat, garaikidetasunaren ezaugarriak aztertzea eta, bestea, artearen eremu espezifikoa eta gizartearen beste eremuetan garaikidetasun hori ezartzea. Une honetan, diska bat prestatzen ari dira Begoña Muñozekin eta telebistarako sail bat Andrea Fraserrekin.

AMASTÉ

AMASTÉ komunikazio eta sorkuntza era berrien agentzia bat da eta gure gizarteko hainbat gaien inguruko proiektuak egin eta hedatzen ditu. Burutzen dituen jardueren artean aipatzekoak dira ESETÉ aldizkariaren argitalpena, Chigua-gua pop proiektua, Emancipator Bubble edo **Artelekuren** komunikazio eta irudi korporatiboaren plan berria. www.amaste.com

BitArt

BitArt sorkuntza garaikidearen eta hiriko bizimoduaren arteko komunikazio plataforma bat da. Burutzen dituen jardueren artean aipatzekoak dira antolatzen dituen festak eta ekitaldiak, sorkuntzako profesionalen arteko topaketak, tailerrak, taldeen arteko lankidetzak.

MUGATXOAN

MUGATXOAN-ek 1998tik, artistaren, pieza bakoitzaren prozesuaren eta produktu bukatuaren artean sortzen diren espaziotan egiten du lan. Baita disciplina artean sortzen direnetan ere. Produkzio estructure haundiak behar ez dituzten eta kode berrien bilaketetan zentratuak dauden artistak gonbidatzen

OKUGRAF

OKUGRAF proiektuak gure garaiko grafikagintzaren inguruko proposamenak eta eztabaidak egituratzen ditu, eta bere asmoa da bisagra lana egitea, zehaztu gabeko mugak dituen eremua izatea proiektuen ekoizpena eta erakusketa, artisten eta ikusleen arteko harremana, hausnarketa eta pentsamendua ahalbidetzeko.

ELEKTRONIKALDIA

Donostiako Musika Elektronikoaren Nazioarteko IV. Jaialdiak datorren urriaren hasieran proposamen berriak aurkeztuko ditu euskarri elektronikoko musika eta proiektuen inguruan. www.elektronikaldia.org

ARTE & ELECTRICIDAD

A&E “do it yourself” eta “home tech” inguruko formulen aldeko apustua da. Fundación Rodríguezzen proposamena da eta gure garaiko artearentzat produkzio eta hedapen era berriak egituratzearen aldeko apustua egiten du.
¡Error! Marcador no definido.

4. IRUDI KORPORATIBO BERRIA

“Erakunde moldakorra eta etengabe aldatzen ari dena, sartu-irteerako topagunea, ADABEGI antzekoa”.

Aldaketa prozesu horretan, **Arteleku** irudi korporatibo berria izango du. Irudi horrek **Arteleku** berriaren ideologia indartu nahi du, hau da, proiektu bakoitzean eta programazio osoan sortuko diren harremanez hornitu behar duen erakundea izango da, bere inguruan pentsamendu kritikoa sortu eta komunitate sortzaile baten garapenerako Arteak duen potentzialtasuna aztertu nahian.

Alde batera uzten da orain arteko A adierazgarria eta horren ordeztu konektore moduko bat jartzen da, **Arteleku** adabegi bezala irudikatu nahi duena, ideiak etengabeko joanetorian dabilzan lekua, topagune, abiagune eta elkargune izan nahi duen lekua.

Kontua da sarrera/irteera horietako bakoitzarekin beste pertsona, erakunde eta enpresa batzuk komunikatzea, eta horiek era berean beren harremanak izatea, harremanarteko sare ahalik eta aberatsena osatuz.

5. ERAIKINA BIRDEFINITUTA

“Gauzarik onenak ez dira beti begien bistan egoten, mamia aurkitzeko sakondu egin behar izaten da. Kulturaren ezereztearen aurrean artelekuk hausnarketa eta produkzio gune lasaiagoak proposatzen ditu”.

Hain zuzen ere pentsamendu horrek bultzatu du **Artelekuko** eraikinaren eraberrikuntza. 4.895 metro karratuko lusailean, zerbait berria eraikitzeko eraitsi-ahaztu ordez, eraikina berdefinitzen ahalegindu dira, Zentroaren ideologiari jarraituz.

Ikus-metafora handi bat bailitzan, obrak atzeko aldean egin dira, **Artelekuko** artistengan eta barne-egituran ohikoa izan dena beti, eta horren helburua beti izan da harantzago joatea, arinkeriarik ihes egitea eta denboran luzatuko den hausnarketa gune bat bilatzea.

Arteleku hasiera batean, lantegi baten leku hutsa hartu zuenean, Arte Ederretako lehengo fakultateen irudira eta antzera pentsatua izan zen, baina gaur egun erabat berrituta dago, informazioaren gizarteak eta teknologia berriek duten eraginaren jabe izanik, kontzienteki garatzen ari dena, lantegi gisako gune bat baino gehiago komunikazio eta hausnarketa leku bihurtuz.

Eraikin berria barruari begira eraiki da, fatxada ia ukitu gabe utziz, baina barne egitura aldatuz eta atzealdeko patioa indartuz.

Espazioa antolatu eta arrazionalizatu egin dugu. Orain batetik bestera mugitzea errazagoa da, horretarako egitura ireki, oparo eta aldagarriagoa du, kristala baita obraren elementurik garrantzitsuenak, eta han ibiliko direnen behar aldakorrei egokitua dago.

Sartu eta berehala administrazio eta zuzendaritza arlo osoa jarri dugu. Horren ondoan, liburutegia, artetegileek lana egiteko zituzten tailerrak zeuden eta ikastaroak ematen ziren lekuan. Horixe da, agian **Artelekuko** gunerik adierazgarriena eta orain 15 urte inauguratu zenetik zentroa nola garatu den argi eta garbi erakusten duena, artea produkzio eta erakusketarako gune izateaz gain, hausnarketa eta komunikazio leku ere badela erakusten duena. Erdian, hasiera batean erakusketa aretoa izan zena, orain gune balioaniztuna da, elkartzeko, atsedean hartzeko eta otorduetarako balio duena, eta hitzaldi aretoaren ondoan dagoenez hura ere handitzeko balio du trenkada mugikor baten bidez.

Gune horren ondoan, lantegi multimedialak eta balio askotarako plato txiki bat daude, lantegi tradizionalak (egur, metal, grafikagintza eta horrelako lantegiak), kanpoaldera eramanez ondoren, utzitako lekua betetzen dutenak. Horrela lekua irabazi dugu, zaratak kendu ditugu, baina batez ere, atzealdeko patioari beste bizitza bat eman diogu, orain ia fatxada nagusi bihurtuz, lorategiarekin batera, jendearentzako plaza bat izango baita, auzoak aurrerantzean izango duen hedatzearekin batera.

Guztira, **Artelekuko** erabiltzaile-bisitariak berritutako eraikin bat topatuko du, hasierako Artelekuren zimendutan oinarritutakoa. Ibilbide hori egiteak, benetan, pena merezi du.

6. LORATEGI PUBLIKOA

Artelekuren eta loiolatarren artean parte hartze handiagoa sortu eta Zentroaren inguruko plazaren ideia bultzatu nahian, lorategi proiektu bat aurkeztu dugu.

Artelekuko lorategia galkorra da. Iraupen mugatua izatea funtsezko ezaugarria da lorategiaren diseinua pentsatzerakoan. Lorategiak unerik gorenean egon behar du sortzen den momentuan bertan. Gainerako lorategiek ez bezala, ez du edertzen joateko astirik.

Euskarri diferenteak proposatzen dira eta naturak horien diseinua osatuko du. Euskarri horiek kartesiar egitura osatuko dute naturaren nahas-mahaserako koordinatu gisa. Osagai horiek lorategian bertan jartzen dira aldatu gabe.

Lasto fardoak ebakitako landaretza izaki landaretza berriaren euskarri izango dira. Plano bat osatuz kokatuko dira eta lorontzi baten antzera bizitzaz beteko dira.

Makaldia landaketa apaingarria baino gehiago laborantza da. Landatzen den unean espazio baldintza batzuk sortzen ditu eta denbora gutxian unerik gorenera iristea lortuko du. Makaldiaren azpian hartxintxarra bota da belarrik atera ez dadin, lorategi osoaren itxura desorekatuko bailuke.

Altzari gisa proposatzen da alderik funtzionalena galdu duen elementu bat jartzea interbentzio modura eratuko dena eskultura izateari utzi behar izan gabe.

7. ARTELEKU BERRIZ IREKITZEA EKAINAK 21

Inaugurazio bat baino gehiago, **Artelekuk** proposatzen du ospakizun eta aurkezpenaldi bat zabaltzea, topaketak ahalbidetzeko, azken 15 urte hauek izan direna gogorarazteko eta etorkizunari begira harreman berriak sortzeko balioko duena. Ekainaren 21ean emango zaio hasiera eta hortik aurrera, 2002ko bigarren sei hilabetean zehar ekitaldi, aurkezpen eta proiektu ezberdinak egingo dira.

7.1. EGITARAUA

Ekainaren 21ean goizeko 12.30 **Artelekuko** ateak berriz zabaltzeko ekitaldia izango da eta bertan egongo dira Roman Sodupe diputatu nagusia, Luis Bandres Kulturako diputatua, Maria Jesus Aranburu Kulturako zuzendaria nagusia eta Santiago Eraso **Artelekuko** zuzendaria.

Protokolozko ekitaldia amaitzean eraikina ezagutzeko ikustaldi bat egingo da eta ondoren aho-gozagarriak eskainiko dira.

Otordutxoaren ostean hasiera emango zaio **Artelekuko** ospakizun egitarauari.

~~Oroimena~~ programa abian jartzeko pistola tiroa ekainaren 21ean botako dugu. Egile batzuk lagun ditugula, elementu batzuk abian jarriko dira Arteleku berriro irekitzeko ospakizunetan. ~~Oroimena~~ programari eraikinaren terrazatik aireko argazkia eginez emango diogu hasiera, ondoren etorriko dira liburu eta bideoaren aurkezpena, Artelekuren ibilbidearen oroigarri eta lekuko gisa, lantegietako eskuhartzea, eraikinaren aurrealdean pankarta bat jartzea, eta pieza bat aldizkariaren altzari gisa areto balioaniztunean jartzea. Partehartzaileen artean ondoko hauek daude: Ibon Aranbarri, Ixone Arregi, Iñaki Garmendia, Xabier Salaberria, Asier Mendizábal, Asier Pérez, Mikel Ubeli, Amalur, Idurre. Horien piezak eta eskuhartzeak ekainaren 21ean erakutsiko dira, horietako batzuetan bisitariak ere aukera izango dutelarik parte hartzeko. ~~Oroimena~~ programak berak ere atea irekita uzten du beste partehartzaile batzuk ere sar daitezzen izango duen hiru hilabeteko aldiaren barruan.

Oroimena

~~Oroimena~~ proiektua **Arteleku** berriro ere irekitzeko aurkezpenaldiak izango dituen hiru hiletan azaltzeko sortu ditugun egoera eta elementu sail bat da. Oroimen konpartitua eta ingurunearekiko lotura afektiboak azaleratzeko ariketa kontzientea da. Horretarako, zentroa antzokitzat hartu dugu eta, alde batetik, dituen funtsak berrikusi ditugu ikuspegi partzial batetik egungo kodeetara egokitzeko. Bestetik, leku zehatz batzuetan, espazio eta formatu ezberdinetan, jardun dugu.

Hori guztia arkitektura berria estreinatu eta zentroaren berri emateko bide bat da. Ekimen eta gertakizunak, pixkanaka, bat bestearen atzetik etorri eta espazio eta denboran txertatzen dira, ikuslearen eta inguratzen duen giroaren arteko harreman berriak horrela ezarriz.

Efektu hori lortzeko, **OROIMEN** proiektua bizi propioa duten lanak birziklatzean oinarritu da, erabilgarritasun zertzelada berrietara egokitu ondoren, jardue4ra eremua lokala izango delarik batez ere.

Lanerako bide gisa egile ezberdin eta banatua hautatzea erabaki dugu, horrela **Artelekuren** esperientzia jende artean zabal dadin.

8. MUGATXOAN 2002

MUGATXOAN 2002 erdibitarteko gunearen ideia inguruan sortu da, kodeen zirkulazio gune gisa, etengabe pairatzen dituen higidurek eta lekualdaketek birdefinitzen dutena. Beraz, programa bi hiritan lekualdatzen da, Donostia eta Oporto artean, eta bi lekutan gertatzen da: Artelekun eta Fundação Serralves-en. Guk aurkezten ditugun obrak hauek dira: \$Shot, **Lacey / Lauro / Parkins / Cornell**; Dora Dream, **Sandra Cuesta**; El eclipse de a. , **Amaia Urria**; A space odyssey (2002), **Cuqui Jerez**. Tiro Inflectido, **Francisco Tropa**; Reflections, Five Minutes objects, The house, eta Here and There, **Gary Stevens**; eta Jérôme Bel, **Jérôme Bel**

Aurkezpen hauek sei astetan garatuko den proiektu baten barruan izango dira. Denbora horretan, hamabost parte hartzaile izango dira **Francisco Tropa**, **Gary Stevens** eta **Jennifer Lacey**-rekin batera lanean. Parte hartzaileok proiektu banari ekingo diote, gauzak ongi direla 2004ko ediziorako guztiz amaitua egon behar lukeena.

9. MANIFESTA

“Artelekuk guztiz bat egiten du MANIFESTAren filosofiarekin, lan prozesu berritzaile eta teknologia berriekin lan egiten duen artista gaztea, zerikusi handia duena bere gizarte eta hiri inplikazioarekin edo arte publikoa egiteko duen gaitasunarekin”. (Lourdes Fernández, Manifestako koordinatzaile nagusia)

2004. urtean MANIFESTA 5, arte gaztearen Europako biurtekoa, Donostian izango da. Antolakuntzaren egoitza nagusia **Artelekun** egongo da eta handik kudeatu eta koordinatuko da proiektua, halaber parte hartuko duten artista askok bertan lan egingo dute. Une garrantzitsua izango da eraikina eta instalazioak probatzeko eta Zentroa jatorri ezberdineko artista eta erakundeekin harremanetan jartzeko.

Mugaz gaindiko biurtekoaren helburua da hiri giro ezberdinetan sartzea dinamismoa, bizitasuna eta kultur dibertsitatea ezaugarri nagusi izango dituen giroa bultzatzeko.

Bost hilabetez, Donostiako hainbat tokitan erakusketak, proiektuak, hitzaldiak, interneteko trukeak eta parte hartzen duten artisten arteko kolaborazio lanak egingo dira.

Manifesta biurtekoa 1996az geroztik ospatzen da, lehenengo aldian Roterdamen izan zen, ondoren 1998an Luxenburgon, 2000. urtean Ljubljanan eta 2002an Frankfurtan. Manifesta Europa mailakoa da eta mugaz gaindikoa, programa bakoitza biurtekoa ospatuko den hiriaren eta dituen kultura azpiegituren arabera antolatzen da.

Biurtekoa hartuko duen hiria aukeratzen duen Fundazioaren patronatua Europako museo eta zentro garrantzitsuenetako zenbait zuzendarik osatzen dute. Besteak beste, Henry Meyric Hugnes fundazioko zuzendariak, Francesco Bonami 2003ko Veneziako biurtekoaren zuzendariak, Kasper König Koloniako Ludwig Museoko zuzendariak,